Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko urrian

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko urrian Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.528 izan da, irailean baino 204 gehiago eta joan den urteko urrian baino 481 gehiago. Egunean bataz bestez 76 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 16 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko urrian 209 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 523 Gipuzkoan eta 496 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 52,1 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 34,2 Gipuzkoakoetan eta % 13,7 Arabakoetan.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 7,2 hazi dira eskaintzak (14 eskaintza gehiago); Gipuzkoan % 2,2 hazi dira eskaintzak (11 gehiago) eta Bizkaian % 29,0 (179 gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 89 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 74,2ko hazkundea, Gipuzkoan % 76,1 hazi dira (190 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 34,0 hazi dira (202 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 25,9a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (395 eskaintza); eta, % 20,7a laguntza teknikarien profilerako (316 eskaintza). Hirugarren sektoreko, industriako eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 221, 206 eta 174 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 15 eta 13 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota gehienak hazi dira. Gehien hazi den profila, balore absolutuetan, zientzia teknikariena izan da (134 eskaintza gehiago, % 51,3ko hazkundea). Balore erlatiboetan gehien hazi den profila zuzendariena izan da (% 85,7ko hazkundea, 6 eskaintza gehiago). Beste muturrean aurkitzen da industria perfila, bertan murriztu baitira gehien eskaintzak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan (47 eskaintza gutxiago, % 18,6ko murrizketa.

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira lehen sektorekoak izan ezik; hauek 4 gutxiago erregistratu dira. Balore absolutuetan, laguntza teknikarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (139 eskaintza gehiago, % 78,5eko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, hirugarren sektoreko profilekoak izan dira (% 93,9ko hazkundea, 107 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 14,2k kontratu mugagabea eskaini dute; % 84,8k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,0, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 217 izan dira, aurreko hilabetean baino 2 eskaintza gutxiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 202 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.296 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 18,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko urrian 15 izan dira, aurreko hilean baino 4 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 122 gehiago izan dira (% 128,4ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 36,7hazi dira; 348 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 11 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko urrian erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurden baino gehiago (1.213 eskaintza, % 79,4) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 9,4k (136 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, urte bat eta hiru urte artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,3ko pisua dute (35 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,1ekoa da (eskaintza 1).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, gehien hazi diren eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (223 eskaintza gehiago, % 22,5eko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira 6 eta 12 hilabeteko esperientzia denbora eskatzen dutenak, balore absolutuetan gehien murriztu durenak izan baitira (25 eskaintza gutxiago, % 15,5eko murrizketa) eta 5 urtetik gorako esperientzia denbora eskatzen dutenak, balore erlatiboetan gehien murriztu direnak izan baitira (% 91,7ko murrizketa, eskaintza 1 gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan ezik (10 eskaintza gutxiago erregistratu dira). Gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (423 eskaintza gehiago, % 53,5eko hazkundea).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 6 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,8k zehazten du datu hori (1.528 eskaintzetatik 257). 257 eskaintza horietatik, 226 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 31k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 128 gehiago izan dira irailarekin alderatuz, hau da, % 130,6 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 19 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 38,0koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 90 gehiago izan dira (% 66,2ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 16 gutxiago (% 34,0ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 13 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 2 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 6 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 71,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.528 eskaintzetatik 437k soilik zehaztu dute.

437 eskaintza horietatik, 178 unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 149 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (86 eta 24 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan, unibertsitatekoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak dira (117 eskaintza gehiago, % 191,8ko hazkundea).

2020ko urriarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira ere. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (87 eskaintza gehiago, % 95,6ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, Batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 118,2ko hazkundea, 13 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena Administrazio Publikoa izan da; honen pisua eskaintza guztien % 22,1ekoa izan da (338 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk manufaktura industria, merkataritza eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak izan dira, eskaintzen % 12,6, % 9,6 eta % 7,7ko pisuarekin (192, 147 eta 118 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz, gehien hazi direnak, bai balio absolutuetan bai balore erlatiboetan, Administrazio Publikoko eskaintzak izan dira (252 eskaintza gutxiago, % 293,0ko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira eraikuntzako eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira balore absolutuetan (58 eskaintza gutxiago, % 42,3ko murrizketa) eta ur-horniketa eta lehen sektoreko eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira balore erlatiboetan (% 66,7ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, manufaktura-industriakoak izan dira (94 eskaintza gehiago, % 95,9ko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira beste zerbitzuetako eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira balore absolutuetan (41 eskaintza gutxiago, % 29,1eko murrizketa) eta energia horniketako eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira balore erlatiboetan (% 100,0eko murrizketa, eskaintza 1 gutxiago).